

2009KO KUDEAKETA TXOSTENA

Eskualdeko hiri garraioa

2009an zehar, guztira, 37.015.073 bidaiari garraiatu ziren; beraz, aurreko urtearekin alderatuta, behera egin du kopuruak, -%3,90 zehazki, bereziki krisi ekonomikoaren ondorioz jarduera jaitsi delako. Azpimarratu behar da datu hori behin-behinekoa dela, datuak egiaztatzen ari baitira kontakturik gabe ordaintzeko sistema ezartzearen ondorioz.

2009ko ekintza nabarmenena da bidaiarien garraio publikoaren kontzesio berriaren lizitazioa, aurreko kontratuarena bukatu eta gero. Lehen lehiaketa eman gabe gelditu zen, eta deialdi berri bat egin zen kontratuaren aurrekontua eta gutxieneko bidaiari kopuruaren konpromisoa aldatuta, eta bost lizitzaile aurkeztu ziren. Azkenean, TRANSPORTS CIUTAT COMTAL, S.A. (TCC) izan zen adjudikazioduna, eta 2009ko azaroaren 1ean hasi zen zerbitzua ematen.

Zerbitzuaren berrikuntza adierazgarriena izan da irailaren 14an 10. linea aldatu zela Orkoiengo Udalerriko Mendikur eremuari zerbitzu emateko, Garraioaren II. Planean jadanik ageri den bezalaxe.

Inbertsioei dagokionez, maiatzean 11 autobus sartu ziren (3 artikulatu) aurtengo flota-berritzearen barnean; hilabete horretan bertan 6 autobus zaharrenek utzi zuten zerbitzua, eta beste 6k urrian kontzesiodun berriak hala adierazita.

Ordaintzeko moduari dagokionez, gizarte profilei zegozkien txartelak banatuta, irailean hasi zen kontakturik gabe ordaintzeko metodo berria eta kontaktua zuen metodo zaharra batera erabiltzeko aldia. Abenduaren 31tik aurrera kontakturik gabeko txartela izan zen ordaintzeko metodo bakarra.

INFORMAZIO OROKORRA

	2008	2009	gehikuntza
Arreta esparrua	9.138,86	9.159,92	%0,23
Arreta jaso duen biztanleria (bizt)	318.865	324.814	%1,87

ZERBITZUAREN ESKAINTZA

Características red de transporte	2008	2009	gehikuntza
-----------------------------------	------	------	------------

Lineak (eguneko/gaueko)	23 / 10	23 / 10	%0 / %0
Eguneko sarearen azalera (km)	220,99	222,03	%0,47
Gaueko sarearen azalera (km)	125,87	127,41	%1,22
Eguneko zerbitzuaren ordu tartea	06:30 - 22:30	06:30 - 22:30	-
Gaueko zerbitzuaren ordu tartea	22:30 - 00:30 (ig,al,ar,az,og)	22:30 - 00:30 (ig,al,ar,az,og)	-
	22:30 - 04:30 (ostiralak)	22:30 - 04:30 (ostiralak)	-
	22:30 - 06:30 (larunbatak)	22:30 - 06:30 (larunbatak)	-

Flota	2008	2009	gehikuntza
Autobus kop.	142	141	% -0,70
Estandarrak (12m)	80	78	%2,50
Artikulatuak (18m)	59	60	%1,69
Minibusak (9m)	3	3	0
Biodiesela	50	50	0
Egokitua (zoru baxua)	125	136	%8,80
Batezbesteko adina (urteak)	5,78 urte	5,7 urte	%7,23

Azpiegitura	2008	2009	gehikuntza
Geraleku kopurua	486	491	%1,03 (490 TUC ordinario + 1 UPNA exterior)
Markesina eta zutoina dituztenak	28	2	%-92,86
Markesina besterik ez dutenak	236	264	%11,86 (262 definitivas + 2 provisionales)
Zutoina besterik ez dutenak	218	221	%1,38 (204 definitivos + 7 provisionales nuevos + 10 prov. obras)

Altzaririk gabe	4	4	%0
Instalazioak	10.000 m2 (Ezkaba)	10.000 m2 (Ezkaba)	0

Zerbitzu maila	2008	2009	gehikuntza
Egindako km kop.	7.688.011	7.832.919	%1,88
Eguneko zerbitzuan	7.436.765	7.536.71	%1,34
Gaueko zerbitzuan	251.246	296.204	%17,89
Ibilgailuen zerbitzu-orduak	584.649	601.027	%2,80
Eguneko zerbitzuan	566.491	579.702	%2,33
Gaueko zerbitzuan	18.158	21.324	%17,44

Zerbitzu eskaera	2008	2009	gehikuntza
Autobusean igota	38.518.647	36.927.280	%-4,13
Eguneko zerbitzuan	37.811.004	36.225.743	%-4,19
Gaueko zerbitzuan	707.643	701.537	%-0,86
Sarean egindako bidaiak	35.126.896	33.907.492	%-3,47



Kudeaketa adierazleak	2008	2009	gehikuntza
per capita erabilpena (ig/hab)	120,80	113,69	%-5,89
Aldaketarik gabeko bidaiak, per capita (bid/bizt)	110,16	104,39	%-5,24

Egindako km-en kopurua, per capita	24,11	24,12	%0,02
Zerbitzu orduak, per capita	1,83	1,85	%0,92
Batez besteko lastertasun komertziala (km/h)	13,15	13,03	%-0,89
Ibilaldiak betetzea	99,55%	100,00%	%0,45
Puntualtasun indizea	90,39%	90,84%	%0,50
Energia kontsumoa km-ko (MJ/km)	24,25	24,44	%0,78
Energia kontsumoa bidaiari bakoitzeko (MJ/bid)	4,84	5,18	%7,11